

ttipi-ttapa

1992.eko Urtarrilak 23

78. zenbakia

dohain banatzen da



**~
IÑAUTERIAK, IHOTERIK,
~
IÑOTIK, KARNABALAK...**



ESTETIKA • SOLARIUM
GIMNASILEKUA

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83
BERA



Eguberrietan
zozkatzen zen
Mendi-bizikleta
Etxalarko lñaki
Mitxelenari tokatu
zaio



KATTU-
JATETXEA

**OSTATUA
JATETXEA**

-Karta

-Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 **LESAKA**



CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



Ahate-foi

Gibel-gizena

Urdai azpikoa

Ahate-hegalak

Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07
BERA

ZURE MAHAIRAKO AHATERIK HOBERENA

ttipi-ttapa

URTEKARIA 91

1.000 Pztatan salgai

non-zer

4 AGENDA Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 HONTAZ ETA HARTAZ

8 IRAKURLEAK MINTZO

9/23 HERRIZ HERRI

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...

24 ELKARRIZKETA: Jose Uranga: "Nekazal produktu ekologikoen demanda ase gabe dago". Biolur Nekazaritza Ekologikorako Elkarteko idazkariarekin solasean.

Josemanuel Irigoien

26 ERREPORTAIA: "Mendi mutilak: Lehen aunitz eta orain gutti".

Patxi Larretxea

28 KIROLAK: "III. Mendi Txirrindula Bilkurak marka guztiak gainditu zituen Beran".

30 MERKATU TTIKIA

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 4.850 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txopereña, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Patxi Petrirena, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldúa Argazkiak, Mattari, Fermin Altzuguren eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** ttipi-ttapa. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza.... **Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati) **ttipi-ttapa** aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061 OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka.....	637428/637336
Leitza	510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun	453039
Gartzain	580451
Oronotz-Mugaire	592024
Ituren	450183
Sunbilla	450283
Goizueta	514067
Igantzi	637755
Arantza	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130

ANBULATORIOAK

Irun	630264/621106
------------	---------------

OSPITALEAK

Irungo ospitalea	614600
Nafarroako ospitalea.....	102100
SSko urgentzi zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
erresidentzia	109400
Gurutze Gorria	226404

ANBULANTZIAK

Oitz	450242/450342
------------	---------------

DYA

Lesaka (larrialdiak).....	(943) 464622
Doneztebe (larrialdiak).....	171717

FUNERARIA

Lesaka.....	637404
-------------	--------

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire	592044
-----------------------	--------

GARRAIOAK

Bidasotarra	630279
Baztanesa	580129
Leitzaran	515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo	580730
Lesaka	637154
Bera	630261

ABERIAK:

Iberduero	450335/450336
-----------------	---------------

W Botikak

► **Urtarrilaren 25-26an**, Arantza, Narbar-te eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Otsailaren 1-2an** Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

W Dantzaldiak

► **ELIZONDO**, urtar-
rilaren 26an ALMEN
taldearekin eta otsaila-
ren 2ean INGUMA tal-
dearekin

W Bestak

IÑAUTERIAK

► **ZUBIETA-ITUREN**,
urtarrilaren 27an, aste-
lehean, Zubieta eta Au-
rtizko joaldunak Iture-
nera joanen dira eta
28an, asteartean, Ituren
eta Aurtizkoak Zubie-
tara.

► **LEITZA**, urtarila-
ren 25ean, larunbata,
9etan mozturuen afaria
eta 12etan rock jaialdia:
HOR KONPON eta
ZARAMA. 26an, igan-
dea, goizez eskea eta
7etan, umorezko saioa
Lizaso, Murua, Peña-
garikano, Telleria, Euz-

kitze eta Egaña eta
Euskal Kantu Txapel-
dunak: Izarra bikotea.

► **SUNBILLA**, urtarri-
laren 24ean puxkak
biltzea baserrietan,
25ean, 8etan "maskara-
da dantza" arkupetan
eta 26an karroza desfi-
lea.

W Deialdiak

► **BERA**, urtarilaren
23an Bortzirietako
Euskara Mankomunita-
tearen Aholkularitza
Batzardearen bilera..

► **LESAKA-IGANTZI**,
otsailaren 7an Lesaka
eta Igantziko Euskara
Batzordeen bilera.

W Bota bertsoa



MAITE ORTIGOSA

Gaia: Lizaso eta Egaña
Goizuetan, emakumeen
bertso afarian

Neurria: Hamarreko Haundia

Emakumeok elkartu gara
zaratatsu eta alai
batzuk senarra etxean utzi
beste batzuek ezkongai
mahai inguruan bi bertsolari
tipoa mantentzen lasai
bertso saioa noiz hasiko den
gu denok hemen gaude zai
bertsozale amorratu gara
"bertsolarizale" ere bai (berriz)

Euskal Herrian plazarik plaza
bertsolaritzan saiatu
Jon Sarasuak belodromoan
ederki zuen frogatu
orain aurrean ditugun hoiek
baietx txapela eskuratu
gure eskutan izango balitz
inolaz ere ukatu
etxetik ekarri dudak kuerda
honenbestez zait bukatu (berriz)

AGENDA

Erakusketak

BERA

PINTURA

Juan Carlos Pikabea eta Juan Manuel Pizzioeren eskutik, Kultur Etxean, Urtarrilako asteburuetan (ortziraletik igandera) arratsaldeko 6etatik 8etara. Igandetan eguerditan ere zabalik.

Zinema

DONEZTEBE

Urtarrilaren 25-26an, "Tres hombres y una pequeña dama".

Otsailaren 1-2an, "Días de trueno".

LEITZA

Urtarrilaren 31an, gaueko 10,30etan "La escalera de Jacob" (beldurrezkoa).

Otsailaren 2an, arratsaldeko 4,30etan "Los gemelos golpean dos veces" (komedia) eta 7,30etan "La escalera de Jacob" (beldurrezkoa).

Gastronomia


PATATA PASTELA

Osagaiak

4 lagunendako:

700 gr. patata, 10 xerra latxo antxoia xehetuak, tipula xehetu bat, 5 kutxare gurin urtua, 5 kutxaratxo irin, 5 kutxare esnegain, katilu terdi esne, perrexila eta gatza.

Labea berotu. Patatak zuri-



Imanol Elizalde eman

KASINO Jatetxea - LESAKA

tu eta xerra finetan moztu.

Tartera bat gurinaz igurtzi

eta patata kapa bat jarri. Honen gainean antxoak, tipula, irina eta gurin urtua banatu. Gatza bota kontutari hartuz antxoak gaziak direla. Ontzi batetan esnea esne gainarekin nahasi eta pataten gainean bota. Tapatu eta utzi labean ordu bete egosten. Tapa kendu eta utzi bertze 25-30 minutu patatak egosi eta gaineko kapa doratu arte. Gaietik perrexila bota. Beroa serbitzatu.

Baserriko feria

ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 7.000 pzta. **Zerrigizena** (95-100): 187 pzta/kilo **Zerramak**: 80 -110 pzta./kilo bizirik.

BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....530
1.koa.....490
2.koa.....450

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....570
1.koa.....525
2.koa.....480
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 320 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 370 Pzta /Kg. Kanal.

Aretze tikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 12.000 eta idixkoak 25.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 25.000 eta idixkoak 35.000 pzta

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

✱ Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

Tfnoa: (948) 63 01 55 - BERA



Europako lehena
ostalaritzarako
garbiketa produktuetan
Tfnoa: (948) 63 01 55 **BERA**



11 galdera ilabur

Zinema



Josetxo Susperregi
Bulegaria

- ▶ **Dirua parrandatarako ala bankoan sartzeko?** Gustukin gastatzeko.
- ▶ **Aberasteko bidean ala beti bezain pobre?** Burua aberastu eta sakelean nahikoa.
- ▶ **Jefea ala langilea?** Jeferik behar ez duen langilea.
- ▶ **Euskal giroa beti ala noizbehinka?** Euskalduna izan eta edozein girotan bizi.
- ▶ **Lesakako inauteriak ala San Fermi-nak?** Inauteriak. San Ferminetan teatro gehiegi egiten da.
- ▶ **Lesakako ezkerre ala eskuina?** Ezkerre sietan eta eskuina lanean.
- ▶ **Mistikoak ala borrokak?** Ideia prefijaturik ez dituztenak.
- ▶ **Rock and Roll-a ala erritmo beltzak?** Gorputza mugiarazten duena.
- ▶ **Jende konprometitua ala pasotak?** Zerbait egiten dutenak.
- ▶ **Drogarik bai ala ez?** Bakoitzak neurria baldin badu, bale.
- ▶ **Sexoa maiz ala bakan?** Beharrak hornitzeko adina izanen bagenu.

▶ Hamlet Franco Zeffirelli B. Haundia 1990

Shakespearean trajediarik haundiena zinema munduan Orson Wellesen gorputz gizen eta aurpegi ilargitsua izan zen garai luze batez.

Britainiar idazle ospetsuaren edozein lan zineratu behar baldin bazen, Orson Welles deitu eta ia lan erdia ongia egiteko bideratua zegoen: Otelu, Lear, Macbeth, Falstaff eta abar.

Orson Welles desagertuz geroztik ez da ia inor ausartu Shakespearean lanak zineratzea



Franco Zeffirelli arte.

Zuzendari honek lehen egin zituen bertze adaptazio batzuek ez zuten hagitz kritika egokia lortu (Romeo eta Julietaz oroitu).

Hala ere, berriz jokatu eta irabazi egin du oraingoan, eta nahiko bentajakin. Mel Gibson, Glen Glose eta Alan Bates aktore bezala; Ennio



Morricone musikari bezala izan ditu Zeffirellik lagungarri.

Bertsio originalean ikusi beharrekoa. Ber-

tsioa erderaratu dutenak, gero eta lotsa guttiago dute.

MARIANO



**AFRO
REGGAE
ZOUK**

ZAGIT

Taberna: JARAUTA, 98.
IRUÑA. Tfnoa: 22 14 40

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA



**Loradenda, bitxikeriak,
opariak, eskulangintza**

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

LUR APAL MEKANOTERAPIA ZENTROA

**BIZKARRA
ARTRITISA
ZAINAK
STRESA**

Plaza Zaharra 7, Tfnoa:
637011 LESAKA



Malerreka atentzio bereziko eskualdea bezala tratatua izan beharko lukeela eskatu dio Doneztebeko Udalak Gobernuari.

Alde batetik bere kokapenagatik eta bertetik eskualdea osatzen duten 13 herri eta beren baserrien dispersioagatik —auniztan bide egokirik gabe— direnak gainera.

Haragietarako behiengatik dirulaguntzak

Eskariak sartzeko epea hilabete honen 31ean bukatzen da eta "Cámara Agraria"tan egin behar da

Europa Ekonomi Elkartek luzatzen dituen diru laguntza hauek eskatzeko, aretzeak haztera dedikatzen diren baserrian behar dute izan, eta eskariak sartzeko azkeneko eguna hilabete ho-

nen 31ean bukatzen da. Horretarako bete beharreko inpresioak eta eskariarekin batera eraman beharreko dokumentuen berri herrietako Cámara Agrarietan ematen dituzte.

Xorroxin Irratia, eskualde osora zabalduz

Herrietako berriak ematen dira eguerdian



Duela 10 urte inguru Baztanen sortu zen Xorroxin irratiak eskualde osoan zabaltzeko pausuei gogor ekin dio, goizaldeko 7,30etatik («Goiz Argi» irratsaioarekin) 2etara eta arratsaldeko 5-9etara zabalduz programazioa. Aipagarria da baita, eguerdi aldera (1-1,30etara) eskualdeko herrietako berriak eskeintzen dituela Xorroxin Irratiak: **Egunero**, Elizondo, Bera eta Le-

sakakoak; **astelehenetan**, Aniz, Amaiur, Arraiotz, Iruñea eta Doneztebekoak; **asteartetan**, Azpilkueta, Lekarotz, Ziga, Ituren, Arantza eta Saldiasakoak; **asteazkenetan**, Arizkun, Irurita, Donamaria, Zubieta, Elgorriaga eta Oitzkoak; **ortzegunetan**, Erratzu, Ornotz, Igantzi eta Sunbillaokoak; **ortziraletan**, Almandotz, Gartzain, Urrotz, Etxalar eta Doneztebekoak.

INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

tttapa

S.L

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekalde Behean.



LESAKAKO ALKATEARI BURUZ

Eskutitza hau, besta egin ondoren eta Jhon Lennonetik ateratzean "alcalde dimite" eta "te queda poco, vas a volar como Carrero Blanco" oihu egiten dutenei zuzenduta dago.

Hilbeltzaren 8aren arratsaldean "escombrera"ren ondoko mendi batean sua piztu zen. Ni han nintzelarik, gure alkatea, ia herri guztiak aukeratu zuena,

agertu zen, eta bere ondotik bertze herri-tar batzuk, zuen alderdikorik (H.B.) ikusi ez nuelarik.

Alkatea izan zen lehendabizikoa man-gera hartu eta sua itzaltzen saiatu zena, baita kontra sua eman ere. Horrela erakusten da herri bati mai-tasuna eta ez zuek bezala Espainatik etorri eta kalean oi-huka egonta.

L. Y.
33.438.675

ITURENGO KULTUR EGUNAK

Kultur Egunen ondotik (Urtarrilak 3, 4 eta 5) zera esan nahi genuke Kultur Taldeko. Lehendabiziko, eskerrak eman kolaboratzaile guziei, bai dirulaguntzen bidez, bai esku bat bota digutenei Kultur Egunotan. Baita ere gure eskertza parte hartu duten ume guztiei eta hurbildu den jende guztiari. Giroa oso alaia eta partai-

detza haundia izan arren, badira etxean gelditu direnak (beraiek jakinen dute zergatik) eta horiei esan nahi diegu, kultura ez dela inoren patrimonioa, beraiek adierazi nahi duten bezala eta horrelako jokaerekin ez dugula sekulan altxatuko herri tikiotako kultura. Gu pozik geldi-

tu gara eta gogoekin berriro ere ekiteko.



Iturengo
Kultur Taldea

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, yogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92
BERA

AMETS LIBURUAK

Liburu bildumen Banatzailea

Ikastola, eskola, elkarte,
kultur etxeetako
liburutegiak osatzeko
behar diren bilduma
guziak, prezio bereziekin

631267 tfnoan harremanetan jarri

SAROBÉ okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinu,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

“Funvera” gai da konpetentziari aurregiteko, Nafarroako Gobernuak dioenez

ROMAN HARRIBILAGA

“Gaur egungo merkatuak eskatzen dituen baldintzetan zeingehiagoka aritzeko gaitua dago Fundiciones de Vera S.A. (Funvera)”, Nafarroako Gobernuaren Industria sailburuak adierazi du azaroan Iruñeko Legebiltzarrean Herri Batasunak aipatutako enpresaren egoeraz egindako galderari erantzunez.

“Funvera” bideragarritasun plangintza batera hartua dago 1.987ko otsailaz geroztik Iruñeko Industria Sailak lagunduta, enpresaren administrazio Kontseiluan ordezkari bat izanez horregatik. Ondoren, “Acenor” enpresa taldeak erosi zuen, Bideragarritasun Plangintzan zehaztutako baldintzak ongi betez orain arte.



Funvera, konpetentziari aurre egiteko gai



Pizzio eta Pikabea margolariak

AITOR

Merkatu berrietara zabaltzen

Industria Sailaren eritziz merkatuak esijitzen duen eraberritze eta egokitze maila garrantzitsua lortu du “Funvera”k, beharrezko inbertsioak eta gaurkotutako gestioa burutu eta gero.

Aurrikuspenen arabera, enpresaren aurtengo produkzioaren %50a kanpora salduko da (ibilgailu alorrerako osagailuak), mer-

katu Europearrara zabaldu ondoren, bezero kopuruaren gehitzearekin batera.

Pizzio eta Pikabea erakusketa berean

Juan Manuel Pizzio eta Juan Carlos Pikabea margolarien lanak ikusgai daude urtarilan Kultur Etxean, Kultura Udal Batzordearen antolaketarekin. Erakusketa, ortziral, larunbat eta igandetan ikus daiteke arratsaldeko 6etatik 8etara eta igandetan,

baita ere, eguerdiko 12etatik arratsaldeko 2etara. Pizzio 23 urte ditu eta Berratarra da. Gouach teknikaz margotutako tamaina txiki-kiko 7 lan aurkeztu ditu bere lehen erakusketa honetan. Pikabeak berriz, 27 urte eta Lesakakoa da. Aintzinetik erakusketak egindakoa da toki ezberdinetan. 13 oleo paratu ditu zintzilik aldi honetan eskualdeko zenbait herritako paisaiak hartuz gaitzat.

**B RADIO
BIDASOA**



expert

RADIO BIDASOAk errex jartzen dizkizu gauzak:

- * Zure elektrogailua, TB, bideoa, etab. aukeratzen laguntzen zaitugu.
- * Dohainik instalatu eta erabiltzen erakutsiko dizuegu.
- * 3 urtetarako garantia
- * Suterako eta lapurretaren aurkako aseguruia.
- * 36 hilabete bitarte dituzu ordaintzeko.

Kanttonberri 1, Tfnoa: 630377 - **BERA**

GRUPO ZURICH



ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

MANUEL LANTZ

KONTABILITEA ETA AHOLKULARITZA FISKALA

Errenta deklarazioak, BEZ edo IVA deklarazioak, Kontabilitateak, e.a.

Ezlegara 14, 1. - Tfnoa.: 63 11 08 - **BERA**

LESAKA

6 miloietako aurrekontua mendiatarako aurtengoan

Hauetatik 2 miloi baino gehixeago plantazioetan gastatuko dira

AITOR AROZENA

Udalak, 5.973.650 pezetatako aurrekontua aurkeztu du 1992rako mendien sailari dagokionez. Hauetatik 2.044.250 pzta plantazioetan inbertituko dira eta gainontzekoa, mendi garbiketan, zuhaitz mozketan, pistak moldatzen, etabar gastatuko da.

Baldrun inguruko 2,4 hektareatan egingen den errepoblazioa 1.269.896 pzta kostatuko da eta bertan 3.800 Douglas izei (abeto), 550 lizar, 20 gezioz eta 20 intxaurrondo landatuko dira.

Akarregi inguruko 0,8 hektareatan berriz, 383.041 pzta. gastatuko dira, bertan 1.100 haritz amerikano eta bertze horrenbertze gaztainondo sartuko baitira.

Gainontzeko plantazioak, pista inguruak apaintzeko eta leku ezberdinetan egingen dira.



Koikili Fagoagak trineo zakurrekin Espainiako txapelketarako baliogarria den lasterketa bat irabazi zuen Alto Canpo-n eta bigarren postua eskuratu zuen Benasquen. Europako txapelketan ere parte har dezake. Dudarik gabe, kirol ikusgarria baina ezezaguna inguruan.

“Ikasturte positiboa”

Irain Dantza taldearentzat

Irain Ikastetxeko Guraso elkartearen babesean dagoen Irain Dantza Taldeak “hagitz positibotzat” jo du 90-91 ikasturtean burututako ekitaldi multzoa.

Gaur egun, 4 eta 18 urte

arteko ia ehun partaidek osatzen dute dantza taldea. Aurtengoan, Euskalerriko bertze dantza taldeekin harremanak sendotu eta gehitu egin dituzte, horren erakusle Lesakan ospatutako IV. Dantzari Txiki eguna delarik. Bertan, Hego Euskal Herriko 350 dantzari eta musikari bildu ziren arrakasta haundiz.

W ttipi-flash

□ **Sutea** izan zen Urta-rrilaren 8an Katazpegi inguruan. Lesakako bonberoak itzali zutelarik. Aipatu behar da oraindik Udalak ez duela zabortegia itxitzeko agindurik eman, behin itxita egonez gero ez bait zen, seguraski, horrelako gauzarik gertatuko.

□ **Arkupe** pilota elkar-tea Euskadiko II. Kluben arteko Txapelketan parte hartzen ari da, paleta senior eta pala corta senior mailetan.

□ **Beti Gazte** elkarteak bigarren urtez antolatuko du Gipuzkoako 3. mailako banakako xake txapelketa. Partidak, Otsailaren 8tik aintzineratu burutuko dira Irain eskolan.

□ **Ski** kanpaina hilaren 26an hasiko da Belaguan. Lesakatik 38 neska-mutil joanen dira, 24 Irainetik eta 14 Tantarumairutik.



Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

**XATURETXEA
FONDA**

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

IRUBIDE

**OSTATUA
ERRETEGIA**

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESAKA

**ONIN
Agentzia**

Albistur 53
Tfnoa: 637359
LESAKA

- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zunzarren-en kolaboratzaileak

KAMINERO

OSTATUA

Beheko Plaza 1, Tfnoa: 637243 - LESAKA

Jubilatuek erregeena egin zuten herriko haurrekin

Errege egunaren bezperan berendatzera gonbidatu zituzten Larraburuan

PELLO APEZETXEA

Eta gonbiteak estima-
zioa lortu zuen, mahai
guziak bete-beteak bai-
tzeuden. Esne-txokoltea
zen gai nagusia. Baina
txokoltari lagun egiteko
irentsi zituzten madalena,
erregetako roskoa, patata
prexitu, eta ez dakit zer
gehiagok, berendu eta afa-
ri legea bete izanen zuten,
seguraski. Hala ere, ez
nago ziur. Musika pixka
bat entzun eta, sail bat
Erregeen etorrera ikustera
atera baitzen, eta haiei se-
gituz berriz ere gosetu izan-
nen ziren, behar bada.
Dena den, gelditu zirene-
kin, musikak ere segitu
zuen, haurren arteko mu-

*Lehenik
betekada
ederra eta
ondotik
bibolina eta
akordeoia*
Argazkia: PELLO



sikalarik emana: Laura
Arribillagak bibolinez, le-
henbizi, eta Jabier Arrosa-
menak akordeoiaz, gero,
denbora luzez.

“Ela-ela”

Ikusi ahal izan dugu-
nez, haur talde gutiago ibi-
li dela iduri du, aurtan, Ela-

Ela kantuan, Urtezahar
egunean. Karrikan gutiago
izan badira ere, ordea, ba-
serrietara gehiago joan ote
diren aditu dugu. Ea man-
tentzen diguten, herriko
gazteenek bederen, aspal-
diko ohitura polita, urte
berriari ongi etorria ematen
diona.



BITTIRIA HARATEGIA

Bittiria 43 - Tfnoa: 627555
LESAKA

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko
toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - **LESAKA**

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - **LESAKA**

KOXXKONTA



Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

**Sagardotegia
Erretegia**

Ezkontza,
bataio, bileratarako
leku egokia
(200 pertsona)

EROSLE LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

IGANTZI

Biltoki, Bidasoaldeko Elkartetako sukaldaritzaren liburuan

Bertzalde, telefono kabinen beharra gero eta nabariagoa da

OSKAR TXOPERENA

Liburu berri bat atera da Bidasoaldeko Elkarteko gastronomiko gehienek bertan bere errezeta ezagunenak edo gehien erabiltzen direnak emanez. Igantziko Biltoki Elkartek ere badu bere zatitxo liburu honetan. Ongi prestatutako jan goxo hauek eskeintzen dituztenen izenak hauexek dira: Pedro Aldabe, Josetxo Arburua, M^a Angeles Telletxea, Joxe Ramon Etxeberria eta M^a Jesus Telletxea. Liburua salgai egon da Biltokin, 600 peztetan. On dagizuela!

Telefono kabinen beharra

Aspalditik aipatzen den



Herrirako ez ezik, Igantziko Bentetarako ere eskatu zaio telefono kabina bat Telefonikari

gaia da haxe. Udaletxetik aunitzetan eskatu izan da kabina bat herrian paratze-ko. Telefonikaren erantzuna, berriz, betikoa: Ez dela errentagarria biztanle ko-

puru honetako herrietan kabina paratzea.

Oraingoan, Arantzako udalaren inizatibaz, bertze eskari bat bidali zaio Telefonikari, herrietan ez

ezik Igantziko Bentetan ere eskatuz. Jakina da jende aunitzen geltokia izaten dela. Gainera orain arte Fondatik deitzerik baldin bazegoen, momentu honetan itxita dago. Bidezko eskaera, beraz.

Urteari errepasoa

*ttipi-ttapa*ko 1991eko urtekariari errepaso ttiki bat emanez datu hauexek ateratzen zaizkigu jaiotza, ezkontza eta heriotzei dagokienez.

5 haur igantziar berri ditugu 1991az geroztik, 6 dira berriz, gure artetik hil direlako falta zaizkigunak eta, azkenik, 2 igantziar bertzerik ez dira ezkondu eta, zoritxarrez, biak kanpora.

GOZOTEGI - JATONE



Itzea 3, 630786 - BERA



Legia 11 - 63 06 64 BERA

Zure publizitatea 4.800
etxetara zabaldu nahi
baduzu, deitu 631188ra

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

**BOTXO
ostatua**

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

BORTZIRI

Itzea 4, behea - BERA
Tfnoa: 63 10 91

- * Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

ITXASO JATETXEA

Menua eta Karta

Ibardingo Gaina - BERA

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA

Hegaz egiteko pista baten proiektua aurkeztu dute Udalan

Parapente, ala delta eta ultraligeroentzako izanen litzateke

JON LARRETXE

«Bidasoa Hegaz» taldeak proiektu interesgarri bat presentatu du Udalean. Hegaz egiteko pista bat eraikitzeko, alajaina!

Arantzan presentatu den proiektuaren mamia 200x60 metroko pista bat Miakan eraikitzea izanen litzateke, horretarako lurra zelaitu beharko litzateke eta gero belarra erein.


Eskarian, Udalarik lekua eskatu diote, trukean errenta ordaindu edo zenbait exhibizio antolatzeke prest daudelarik.

Udalak proiektua aztertzen ari da eta kontzejal batek erran digunez hagitz interesgarria iduritu zaie, «alde batetik inolako

«inpakto ambientalik» sortzen ez duelako, bestalde bertze gauzetarako erabiltzerik izanen zen zelaia, bertan antolatutako lehiaketak fama emanen lukete Arantzari eta diru iturri ere izan daiteke». Duten arazoa, erran digutenez, «lur horiek partikularrak direla eta eurekin moldatu beharko dugula».

Arau Subsidiarioak

Hasierako onarpena emana izanen da eta hila-bete bat du jendeak enmiendak edo aldaketak proposatzeko, gero erabateko onarpena egingen baita eta Diputaziora bidali. Horrez gero, hagitz zaila izanen da deus aldatzea. Beraz, erne egon.



Parapente, ala delta eta ultraligeroentzako izanen zen pista

Ketzal Agiria onartu

HBn 3 boto eta EAren botoarekin onartu zen Ketzal agiria, PNVko 2 abstenuitu eta batek kontra eman zuelarik. Ageri honetan, Amerika deskubritu zela 500 urte betetzen direla eta,

antolatu diren ospakizunak gaitzesten dira.

Harritzekoa da PNVren postura, izan ere Arzalluzek berak «show impresentable»-taz definitu bait zituen EBBko lehendakari aukeratu zuten ekitaldian.

ATERPE
jatetxea

Mendi ibilaldietarako Mountain bike bizikletak
alokatzen ditugu
Tfnoa.: 63 41 79 - ARANTZA

Ostatu
Jatetxea _____

BETi-JAi

Askain 1, Tfnoa: 63 08 10 - BERA

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA

MANOLO
TABERNA

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,
Ardoak, Likorrak,
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

SARA

Beti Gaztekoek krakada goxoa hartu zuten Pullman-en

Bertzalde, sute haundi batek 150 Ha. erre zituen Larrun Ttikin

OLHAIN ELKARTEA

Abendoaren 18an, Borda jaunak Pullman osatuko nagusiak eskaini zuen adinekoeri krakada goxo bat. Ekintza hunen goraipatzeko Manex Bergarak ere bertsuak ondu zituen.

Pasaka jokoko emaitzak

Euskal Herriko xapelketaren kanporaketen kondu jokatu zen Urtarrilaren 5ean, Saran. Arrieta Mattin eta Koxe Oronoz, Sarako bikoteak galdu zuen Hendaiaarak taldearen ize-nean ari ziren Calvet Didier (hau saratarra) eta Luroren aurka: 13 eta 8.



Sarako pilota eskolan xistera ere lantzen dute

Aintzineko igandean Sarak irabazi zuen Baigorri II taldearen aurka 13 eta 7.

Oroitarazi hala ere, galtzale eta irabazle guzietan ondoko partidetan parte hartuko dutela, jokolari eskasez. Beraz, suerte on deneri.

Larrunen suteak: ikusgarri berezi baten alaberako desmasiak

Asteartetik eta asteazkenerako gauean Larrun Ttiki guzia erre zauku sute haundi baten ondorioz.

Huni buru egiteko, 60 bat su hiltzaile aritu dira su eta khe gau guzian. Luzaz haizego bortitz bat borrokatu behar izan dute garra azkar batzuekin batera. Asteazken goizean dute azkenean sua garraitu, 150 Ha.ko eremu bat errerik gelditu ondoan. Orroiti ari behar da Senpere, Baiona, Donibane Lohitzun, Hendaia, Kanbo eta Hazparnetik jinak zirela beren laguntza eskeintzerat. Larrunen koordinaketa Ospital lieutenanteak burutu du, plazan jarriarik zen tresneriari esker. Saratar eta Kontseiluko batzuk (Ani-otzbehere auzapeza hauen artean) jarraitu dituzte urratsez urrats gertakariak.

JOXEMANUEL

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guerendiain

SARA - LAPURDI

COMERLAV
S.L.

HEZETASUNA... komertzio, biltegi edo almatzen, etxebizitza, garaje etabarretan...
DANTHERM lehorgailu berriei esker, hezetasuna kontrolatu eta kentzea garantizatua dago.

ETXE BERRIETAN

DANTHERM lehorgailuen bitartez, etxe berrietako paretak, zolak eta tetxoen lehorte prozesua nabarmenki azkartzen da, gero, pintatu, parketa jarri edota bertzelakoak egin ahal izateko.

Salmenta eta alogera
Joaquin Beunza 10, Tfnoa: 13 15 27
IRUÑEA

LUR BERRI



coopérative agricole

64310 SARA

Tfnoa: 59 54 20 13

IDEKIDURAK:

Goiz guziz (astelehenean salbu) **8,45etatik 12,00etara**
eta astelehen arratsaldean **14,00etatik 18,00etara**

Zoriongarriak-Alimenta eta Hazi saltzailea

Heldu dituk, heldu ditun inauteriak

Paleta txapelketan herrikoak bigarren

PATXI PETRIRENA

Egitarau zabala prestatu dute aurten ere inauterien antolatzaileek hilabete honen 24, 25 eta 26rako, ortzirala, larunbata eta igandea.

Ortziralean, 9etan elkartean gosalduko dute inautelariak, gero baserriz baserriko itzulia egiteko puxkak bilduz. Arratsaldeko bortzetan haurrentzako txokolatada elkartean eta 10etan afaria.

Larunbatean, Iruribieta ostatuan egingen dute gosaria 9etan, 11etan herrian hasteko etxeko ibilaldia. 2etan Ibarburun bazkaria. Arratseko 8etan arkupetan "maskara dantza",



9,30etan Herriko Etxean afaria eta 11,30etan gaurpasa pilotalekuan Jator taldearekin, sarrerarik ordaindu gabe.

Igandean, 9etan gosaria Ulibeltzak elkartean,

12etan karroza-desfilea eta leian pilotalekuko ikuskituna: herriko dantzariak, zerri eta bildotsaren zozketa eta Gipuzkoa eta Sunbillako taldeen arteko desfioa herri-kirolean. Aizko-

ran 3 korte, arpanean 9, harrijasotzaileak 100 kiloko harriari 9 altxaldi, korrikalariak 9 itzuli eta 700 kiloko harriarekin 12 plaza egin beharko dituzte Sunbillako sokatiralariak eta Gipuzkoako astoak. 2etan bazkaria elkartean eta 6etan dantzaldia bertan Amalurerekin.

Pilotan bigarren

Ezin izan zuten Juanjo eta Bittirik paleta txapelketa irabazi, tanto bategatik kendu bait zieten Larralde eta Pierolak (35-34). Bertze partiduan, hirugarren eta laugarrenenak, Estanga-Elizalde 35-27 irabazi zeten Jaen eta Melori.

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

MENDI HOTELA



DONAMARIATIKO BENTA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA

DONEZTEBE

Udalak kanpaina sozio-kulturala martxan jarriko du

Zortzi ikastaro labur antolatuko dira

TXEMA ALDABE

Doneztebeko Udaleko Kultur Sailak, norberaren kultura aberasteko helburuarekin ikastaro hauek antolatu ditu "Garai hon-tako Nafarroako historia", "Animazio sozio kulturala eta bultzatzailea", "Pertsonarteko harremanak-komunikazioa", "Taldean lan egiten ikasazu!", "Ohiturak-herriko tradizioak I", "Ohiturak-Nekazal lanak", "Hemengo dantzak", eta "Musikaren



M. J. Perurena, Kultur kontzejala

bizipena". Apuntatzeko epea hilbeltzaren 30a artekoa da, izena Herriko Etxean eman behar dela-

rik. Apuntatu diren guziekin otsailaren 8an, eguerdiko 12etan, bilera eginen da apuntatutako guziekin.

Euskaltegian matrikula irekia

Malerrekako Euskaltegia-IKAn hilbeltzaren 31 arte apunta daiteke euskarra hobetu edo ikasi nahi izanez gero. Ekainarte iraunen du ikastaroak eta aukera guziak daude, goizez, atsaldez eta gauez bait dira klaseak. Informazio gehiago 451555 tfnoan.

ttipi-flash

□ Herriko bestak aurten ekainaren 26tik uz-tailaren 1era izanen dira.

□ Mendaurreko Esku-pilotari Josetxo Ezkurraren II. Memorialaren anto-laketagatik Udalak 76.667-ko dirulaguntza eman dio. Gastuak denetara 230.000 pztatakoak izan ziren.

□ Herriko Etxea gar-bitu eta asteburutan Esko-lako frontoia zaintzen du-ten langileen egoera labo-rala aztertuko du Udalak.

URROTZ

Pilotaleku estalia ia-ia martxan dago

Dagoneko batzuren batzuk partidu batzuk jokatzu estrenatua dute

TXEMA URROTZ

Pintatzetik akitzea eta argia paratzea bertzerik ez da falta arras akitzeko, nahiz eta obra momentuz geldirik dagoen. Hala ere bada dagoneko estrenatu duen jenderik, atea ezarri baino lehen sartzen ahal baitzen eta zenbaitzuk, probatzeko, partidu batzuk eginak dituzte.

Bertzalde, obraren 4. zertifikazioa (20.204.725 pztatakoa) ordaintzea onartu berri du udalak azken plenoan.

DYarentzat laguntza

DYAk Donezteben ja-rri berria duen egoitza la-guntzeko, Urrozko udalak 25.000 pztatako dirula-guntza eman du.



Beatriz

ILEAPAINDEGIA

San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- ❖ Ileapaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a
- ❖ kalitateko perfumeak
- ❖ Bitxitegi fina



ARROPA ETA OPARI DENDA

Tfnoa: 451540
Mercaderes 9
DONEZTEBE

Iñauteriak 25etik 29ra eta otsailaren lehenean

Bertzalde, ETB eta kanale berriak hartzeko errepetidorea jarriko da beharbada

IBAN ISASI

Ituren eta Zubietako inauterien data Errege bezperan ezarri zen ohitura zaharrari jarraituz; Ituren, Aurtiz eta Zubietako joaldunak bildu zirelarik horretarako.

25ean afariarekin ematen zaie hasiera eta ohi denez, astelehenean Zubietar eta Aurtiztarak Iturenera etorriko dira eta asteartean, Iturengo Joaldunak Aurtiz eta Zubietara joanen dira. Larunbatean Kontuen Eguna ospatuko da bertsolariak, bazkaria eta arratsaldean inauteri egun guzietan bezala dantzaldia egonen da Kristianekin.



Gaiean ditugu Iñauteriak

ARTXIBOA

Mendi-probetxamendua komunaletan

Nafarroako Gobernuak onartu egin du 14.743.787 pztatako diru-laguntza. Ituren-i 1.342 pinu eta 282 egur m³ dagozkio,

2.006.247 pztatan balorturik daudenak.

ETB eta kanale berriak

Hilabete honen 11ko Udal-bileran aditzera eman zen Doneztebeko Udalean izandako bileran agertu-

takoa. Hau dela eta, errepetidore berri bat ezarriko da, beharbada, eta honi esker ETB 1 eta 2 (Aurtizen orain Elizako errepetidorea izorratuta dagoelako eta herrian hartzen zen imajinaren hobetzea edo mejora lortzeko); Antena 3 eta Telecinco ere ikusiko dira. Presupuestoari begiratuta, eta Itureni dagokionez, pertsona bakoitzeko 1.300 edo 1.400 pezeta kostako litzateke errepetidore berria. Hilabete honen 25ean hartuko da azken erabakia.

Bertzalde, Urtarrilaren 11ko bileraren xehetasunak hurrengo TTIPI-TTAPAN emanen ditugu.



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA



Merkealdiak

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE



trebeki

jostailuak - eskulanak

Sebastian Errazu 1(943) 61 83 97 IRUN

Erakusten dugu:

- ❖ Makrame
- ❖ Tridimensional
- ❖ Saskigintza
- ❖ Telar
- ❖ Eskaiola margotu
- ❖ "miga de pan"



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



Oinetakoak

San Miguel 2, DONEZTEBE

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa.: 45 04 91

ZUBIETA

JUAINAS

Estalpean afaltzen bukatu orduko hurrengo afaria antolatzeke prest zeudenak ba omen ziren. Berririo Lizaso ekarri nahian: Zubietta herri bertozale amorratua bihurtu ote? Sukaldariak aguantzen badute bai.

90 lagun bildu ginen, etsaiak sute pixteari lotzen zirelarik eta bertsolariak euren jarioa erakusten zuten, bidenabar. Denetik pixka bat egondu zen gau hartan. Puntu jartzaileak markatzen zuen mugarrietatik zehar. Etorri ziren aspaldiko partez ittundarrak kortesian; bisita bueltatu

zitzaiaela esan beharrik ez dago. Hori bai, bakoitzak bere zereginetan ari zelarik, Telleriak joariak jotzen ikasteko maestra aparta topatu zuen: kasualitateak nolakoak dira, aizu!

Lizasok berriz, erabaki ezinean eskuak izerditzien zituen: hau duk hau Tabacalerak duen bizimodu petrala!

Errotako Joxek duen abilezia erakutsi zigun, abilezia eta balentria, ez bai da belaxe mututzen alegia... beti aurrera segi.

Urtearen hasiera ona borobiltzeko Mikelek Errandonea berririo ireki du, bazen beharra! Eta baka-



Denetik pixka bat egon zen bertso afarian



toz lau bat urtez betetzeko prest baldin badago, telefono hontara dei dezala, ostirale-tatik igandetara: 580002 (Patxi Jaure-

rreren batek lur eremuak okupatu ezinean badabila, malkorregiak ez diren horietakoak, noski, eta abe-

gi). Hektarea bat behar omen du! Sosa emateko bada? Ameriketako etxe atarian.

BEINTZA-LABAIEN

Igande egunak betetzeko eta jendea biltzearen:

Bigarren arpana txapelketa, aizkolariak binaka eta ahare jokoak

PATXI OTXANDORENA


Etiket ateratzeko, jendea lagunartera biltzeko eta solasbiderako aitzaki bat ere behar izaten da, eta datorren hilabeterako herri kirol saio batzuk eskeintzeko asmotan dabilta.

Otsailaren lehen igandean, Bigarren Arpana txapelketa egingen da. Iaz 4 bikote aritu ziren, herrikoak, eta aurtengoan beste 4 edo 5 aritzekoak

dira haunditan, eta gainera bizpahiru pareja haur eta gaztetxoek artetik.

Geroxeago, Otsailaren azken iganderako edo, herriko Aizkolarien I. txapelketa ere antolatu asmo da.

Hortaz gainera, ahari proba bakan batzuk ere sartuko ditugu. Laguntzeko hitza emana du Udalak, gazteek lanerako gogoakin dabilta eta jendeak erantzungo duelakoan gaude.



Zure publizitatea 4.800
etxetara zabaltu nahi
baduzu, deitu 631188ra

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA



KAMAMILA
DENDA NATURISTA

- ❖ Mediku kontsulta naturista
- ❖ Sauna (ordua eskatuz) eta masajista

Merkado Errepidea, 2. Tfnoa: 451 528 - DONEZTEBE

- ❖ Kosmetika naturala
- ❖ Lurrinak, kolonia naturalak, xaboiak, lore idorrak...

Ihoterik (Iñauteriak), Leitzan

Atxauretuen afaria (Aurreran), Hor Konpon eta Zarama (Jarraik), umorezko saioa (IKAk)



Ikusgarriak izan ziren "ezteiak" lehengo urtean. Behar bada serioe-
giak iñauteritarako. Bainan itzelak, sonatuak... mundialak!

ANTON



ANTON

ANTTON ERKIZIA

Hemen badakigu, ez ordea kanpoan eta inguruko herritan behar bada, eta haientzat doa notizia: Ihoterik ditugula Leitzan urtar-
rilaren azken asteburu hontan. Eginen dizugu leku, izanen da dibertsio-
rik aski, zer ikusi eta zer entzun. Motelena ere bero-
tzen da hemen Iñauteritan. Hona programa, eta ez nolanahikoa:

Larunbatean: 9tan Au-
rrerak antolatzen duen Atxauretuen (mozorro-
tuen) afaria eta 12tan fron-

toian, rock jaialdia, Jarrai-
k eratua: Hor konpon eta Zarama.

Igandean: Herrian es-
kea, etxez etxe goizez. Atsaldeko 7tan: umorezko bertso saioa, IKAk antola-
tua: Lizaso, Murua, Peña-
garikano, Telleria, Euski-
tze eta Egaña. Hortan gain, aurtengo Naparroako Eus-
kal Kantu txapeldunak kantari: Izarra bikotea.

Astelehenean, baserriz baserri urtero egin ohi den bisitaldia eta eskea eta as-
teartean gauza bera Eraso-
te auzoan.

Denontzat kafeak, ezetz
ezagutu hor ageri diren horiek.
Orain dela 20 bat urteko
argazkia da baina, batzuen
kopeta zokoak ez dira gehiegi
aldatu



EZKURRA

Aurten etorri da Olentzero herrira

MARIA JESUS G.B.

Ohitura den bezala, eguberri bezperan Eraku-
rri menditik etorri zen Olentzero ikazkina, urtean zehar gailurretan bizi dena eta jai hauetan gurekin elkartu nahi izan du Jesu-
sen jaiotza ospatzeko. Aste bat lehenago, parrokiako gaztetxoak, denbora li-
brean, esku bat mugitzen zuen Olentzero eder bat

egin zuten. Arratsaldeko 4etan haur talde batek be-
ren gurasoekin Olentze-
roaren etorrera gogo haun-
diz itxaro zuten. Herriari bueltaka hasi ginen egube-
rrietako kantz Joseanen soinuarekin batera alaituz, txikienak, merienda bate-
tarako puskak biltzen zi-
tuzten bitartean.

Hemen, jendea oso es-
kuzabala agertu zen.



JOSE LUIS

GOIZUETA

Bertso afari berezi bat urteko lehen ekintza kulturala

60 emakume bildu ziren Lizaso eta Egaña bertsolariekin

ESTEBAN AROZENA

Bertso afariak noiznahi eta nonahi antolatzen badi-ra ere, ez dugu uste hilaren 10ean Umore Ona elkar-tean burututakoa zerrenda arrunta batean sartu daite-kenik, ez baita batere nor-mala 60 emakume mota honetako afari batean bil-tzea.

Lizaso eta Egaña auke-ratu zituzten bertso lan-gintza betetzeko eta ema-kumeen asmoa ordu asko elkartean igarotzea baldin bazen, esan beharra dago ongi asmatu zutela hau-taketa egiterakoan, bara-tzuri zopa jandakoan, goi-zeko 7ak inguruan, orain-dik gogor ari bait ziran bere



Xebastian Lizaso eta Andoni Egañarekin ederki pasatu zuten Goizuetako emakumeek

lanean bi bertsolari haundi hauek. Aipa dezagun, "Xapre" trikitilariaren eginkizuna ere estimaga-rria izan zela, bertsolarien atsedenaldiak bere musikaz betez.

Olaizola - Berroeta, Nafarroako txapeldunak

Asier Olaizolak eta Xa-bier Berroetak beste txape-la bana lortu zuten errege

egunean Labrit pilotale-kuan jubenilen arteko Na-farroako txapelketan ga-raipena lortuz Irurtzungo Inda eta Belokiren kontra 22 eta 12ko emaitzaz bukatu zen partidu batean.

Hainbesteko garrantzia duen titulu hau irabazi-takoan, orain arte baino tratamendu hobea jasoko al dute behintzat Olaizola eta Berroetak federazio-arengandik, joan den uda osoan ez bait ditu deitu partidu bat bakarrik joka-tzera ere bi mutil hauek. Bestalde, bi goizuetarren aurka burua makurtu duten pilotariak partidu askotan parte hartu dute, hain zu-zen Nafarroako federazio-ak deituta.

ERATSUN

Jaiotza biziduna burutu zen Gabon gauean

PATXI MARIEZKURRENA

Beti bezala Eguberriko egun hauetara iristean, egun hauetan zoriotsu eta alai aurkitzen gara, gure herrian, berez ezagutu izan den bezala pozaren pozez egon ginen herri guztia. Ze edertasuna ikusirik herriko jendeak gauerdiko mezara duen elkarketa afari ondo-ko festa utzita. Ikusgarria da Eratsungo gauerdiko

meza, zoragarria da herria-ren abesteko modua, batez ere, Gabon kantak. Ain-geruen hotsa dirudi. Aur-ten berri bat izan dugu, katekistak eta ikasleak meza ondoren, Jesusen jaiotza aurkeztu ziguten, jendeak txalo beroz eran-tzun zuen eta trikitixa polit batekin bukatu genuen. Horrela izan dira gure eguberri egunak; zorionak eta urte berri on.



MARI MAR

Eguraldi hotzak eta elurrak negu itxura eman dio inguruei

Urte haserako batzarreen ondotik, Iñauteak erraldoan heldu dire

JOSEBA IGARABIDE

Herri guzietan batzarreak egin ziren. Denetan kontuak begiratu egiten dira eta aurren, herri gehienak, uraren asuntza begiratu dute (ordaintzea eta garbiketa). NILSAk ikerketa lanak burutzen ari da garbiketarako eta Urria aldera saneamendu lanak hasteko prest izanen omen dira.

Iruritan Urtarrilaren 12an egindako batzarrean frontoi berriaren izena erabaki zen. «Aranabia» izena izanen du, parajea eta errearen izena. Frontoiaren obrak martxa haundian doazi aintzinerat eta instantean lehorra ematen hasiko dira.

Iñauteak erraldoan heldu dira

Almandotzekoak eta Iruritako errekoak pasatu dira gan den asteburuan, Joxe Angel akordeolaria izan zuten eta umorea bertako gazte eta zaharrak paratu zuten.

Suteak Baztanen

Urtero bezala garai hontan idortzen duen be-



Elbeteako eliza moldatzeagatik 112.044 pztako subentzioa eman du Nafarroako Gobernuak

zain fite suteak izaten dira. Errege egun horietan sekulakoak izan genituen, bertzeak bertze, Iruritako erreka, Azpilkueta, Arizakun, Elizondoko mendiak, Erratzu-Arizkun... Ohitura den bezala artzaiak mendia garbitzeko pixten dute sue, baina garai batean baino lur eremu gehiago erretzen da, egun ez baita iratzerik egiten. Irtenbidea: mendi garbiketarako egitea Gobernuak ordaindurik, artzaien eta nekazarien mesedetan.

Nekazariaren bulegoarendako kexak

Nafarroako Gobernuak

ren Elizondoko nekazarien bulegoak kexa ugari sortu ditu, langile eskasian baitago. Bertan, nekazariak denbora aunitz pasatu behar izaten dute gia ximple baten eske joanda ere.

Ardi esnea eta bildotsaren prezio apalak

Esnea saltzen ari dira baino oraindik ez dakite zenbat kobratuko duten ere. Hitz egindakoaren arabera, 20 durotik goiti guti izanen dela pentsatzen da, batez ere ikusirik Iparraldean 105 pztako inguruan ordaindu zutela abenduan. Bildotsaren prezio merkeak ere izi-

tu ditu hainbat artzai, izan ere, Frantziatik heldu den bildotsa (esne artifizialarekin hazitakoa) 280 pzt/kiloa saltzen ari dira eta horrek traba haundia egiten dio bertako bildotsari, nahiz eta hemengoak kalitatez aunitzez hobeak izan. Erosleak eta batez ere Urtarrilan, sakelari aunitz begiratzen dio.

Dena den Euskal Bildotsaren Kofradian sartuta dauden artzaiak prezio hobeak egiten ari dira, baina beste gainerakoak ezin salduz dabilta. Beraz, argi dago artzaiak ere iraun nahi badu ez duela produzitzearekin aski, komertzializazio bideak landu beharko dituela.

☐ Udalak "abiazioaren eremua" eskatu dio Defentsa ministeritzari.

☐ Amaiurko kanposanturako bidea auzolanean moldatuko da.

☐ Zigako Almaiz auzoan zaborrentzat eta beirarentzat kontenedore bana paratuko dira.

☐ Euskararen normalizaziorako, 11.867.363 pztako aurrekontua dago.

KARMELE

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Merkealdiak
Tela eta Arropetan

ZUGARRAMURDI

Herriko 6 gazte gan dire aurten ere mundua ezagutzerat

Beraiekin batera, Sara, Getari eta Narbarteko lagunak ere gan dire

MARGARI eta KORO

Aurten ere ganak zaizkigu mundu ezagutza, herriko 6 lagun. Gan den urtean India, Nepal eta Thailandia ezagutu bazuten, aurten Sri-Lankarat (Ceilan) gan dire.

Helena, Margari, Axun, Mer, Joxe eta Mikel Zugarramurditik; Aline, Mari Helen eta Sandrine Saratik, Philippe Getaritik eta Enrike Narbartetik atera ziren hilaren 8an eta 3 leian Miarritzeko aeroportorat

ganen gara haiek errezibitza.

□ **Abenduaren 28an** bertze mus txapelketa "fitefite" antolatu zen Herriko Etxean. Honetan partaide gehiago izan ziren eta azkenean, giro ederrean, Xota eta Pedro irabazle.

□ **Zugarramurdi** herri ttiki eta aparta da: hiri "haundietatik" urrun (Elizondo 27 km., Donibane 25), dantzalekueetatik berdin (Bordatxo 40 km.), zineak urrunago (Iruña 85



km., Irun 40 km.). Horrela pentsa ezazue edozein as-teburutan Zugarramurdi edo Urdazubiko gazte ba-

tek egin behar dituen kilometro pilak herritik kanpo dibersioa bilatzen badu.

ZUNZARREN Gestoria

♦ Allianz Ras
Aseguruak

♦ Bidai Agentzia

Tfnoa: 45 22 93
Amair Gaztelua 2
31700 ELIZONDO

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia
453168 - ERRATZU

Esikisari jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

Etiket mugitu gabe
ardoa erosi nahi baduzu

- Botilatu eta botilatu gabea
- Markako ardoa...

deitu 45 32 66 Tfnoa.
AZPILKUETA

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

«ZALDUBI» SUKALDE MOBLEAK



Altzari fabrikazioa eta
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77
IRURITA - BAZTAN



FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak

- Instalakuntza berriekin,
 - roiloen errebelatzea "ordu bat" baino gutiagoan
 - egiteko aukera, «Fuji» kalitatearekin
- Elizondo Tf: 58 04 91
Doneztebe Tf: 45 03 64



Ezkontzetako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
**ORDU BATEZ
ERREBELATUAK**
ditugu

URDAZUBI

Patxi Jaurena eta Julen Huarte txapeldun

Baztango benjamin mailako eskupilota txapelketa irabazi zuten Arizkun

ALIZIA OLAIZOLA

Urtarrilaren 5ean, igandea, Arizkongo pilotalekuan, Baztango benjamin mailako eskupilota txapelketaren finala jokatu zen, bertan Urdazubiko bi mutikok parte hartuz: Patxi Jaurena eta Julen Huarte 9 eta 10 urtekoak. Erratzuko Santi Ibargarai eta Elizondoko Iñaki Atxaren kontra aritu ziren, Urdazubikoak txapeldun geratuz 18-13.

Bataioa

Errege Egunean Mikel



Urdazubiko "San Salvador" eliza

Cenoz Verdu-ren bataioa izan zen. Urteko lehena.


San Anton eguna

Urtarrilaren 17an, San

Anton egunean, meza nagusia eta Indianobaitan ohiturazko bazkaria izan zen, nekazari andana bat bildu zelarik.

Sei logela gehiago turistei alokatzeko

Beotxea Jatetxean ari dire logelak egiten turistei alokatzeko. Sei egin behar dituzte eta logela bakoitzak bere bainugela izanen du eta egongela bat telebistarekin. Oraindik ez dire bukatuak baina Aste Sainduko eginak izanen dira.



asteroko
ARGIA

ARGIA: Industrialdea 1-2. Lasarte-Oria 20160.

Telefonoa: 943-371545 / Faxe: 943-361048



ARGIAREN HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT (astekaria eta urtekaria)

IZEN DEITURAK

HELBIDEA

TELEFONOA

HERRIA

PROBINTZIA

BANKU edo AURREZKI KUTXA

SUKURTSALA

KONTU KORRONTEAREN Zka.

SINADURA

Harpidetza Sariak: Hego Euskal Herria: 9.750 pzt. / Ipar Euskal Herria: 640 libera.
/ Estatu espainiarra: 9.750 pzt. / Beste atzerriak: 12.800 pzt. / Airez: 20.200 pzt.

EZKONTZAK

Juan M^a Iparragirre Salaberria eta **Bernardette Irigoien Elizalde**, Arantza eta Etxalarkoa, abenduaren 7an.

Paxkasio Iribarren Matxiñena eta **Nekane Altzugarai Mitxeleña**, Urrotz eta Lesakakoa, Urtarrilaren 11an.

Miren Ainhoa Izeta Lizarraga eta **Javier Eugi Huartemendikoa**, Leitzeta eta Iruñekoa, Urtarrilaren 11an.

M^a Jesus Goikoetxea Almarca eta **Jose M^a Astibia Olano**, Leitzakoak, Urtarrilaren 11an.

Fco. Javier Etxeberria Aizkorbe eta **Ana Gomez Murugarren**, Iraizoz eta Sunbillakoa, Abenduaren 7an.

JAIOTZAK

Maite Lazkano Olabarri, Leitzan, azaroaren 19an.

Julen Pradines, Saran, Urtarrilaren 9an.

J. Claude Dominique Gouffault, Saran, Abenduaren 29an.

Maiena eta **Maidar Arizkorreta**, Bizkarean (Saran), Urtarrilaren 7an.

Dornaku Lanz Solbes, Lesakan, Urtarrilaren 1ean.

Aitor Begino Irigoien, Igantzin, Urtarrilaren 14ean.

Julen Sagastibeltza Lasarte, Leitzan, Azaroaren 7an.

Kevin Bera Saizar, Leitzan, Urriaren 12an.

Nerea Zabaleta Lasarte, Leitzan, Urriaren 16ean.

Jordi Gillen Dominguez, Leitzan, Abenduaren 14ean.

Izaskun Zabaleta Aranalde, Leitzan, Azaroaren 25ean.

Xabier Juankorena Iparragirre, Sunbillan, Azaroaren 3an.

Sandra Telletxea Rekarte, Donezteben, Urtarrilaren 9an.

HERIOTZAK

Fco. Gonzalez Parada, Etxalarren, abenduaren 28an, 86 urte.

Eugenio Telletxea Telletxea, Lesakan, Urtarrilaren 2an, 72 urte.

Jose M^a Larralde Gaztelumendi, Lesakan, Urtarrilaren 13an, 70 urte.


Ramona Errazkin Otxoteko, Lesakan, Urtarrilaren 14ean, 84 urte.

Anparo Arangoa Satrustegi, Abenduaren 13an, Leitzan.

Jose Bertiz Iparragirre, Sunbillan, Urtarrilaren 13an, 80 urte.

Jesus M^a Elizondo Jorajuria, Beintza-Labaienen, Urtarrilaren 6an, 38 urte.

Jose M^a Ariztegi Iribarren, Oitzen, Urtarrilaren 7an, 68 urte.



ERAKUSKETA:
BEREAU ETXEA
LESAKA NAFARROA
Telf: (948) 637266

BORTZIRI

«UNSION ANAIK»

SUKALDERAKO ALTZARIAK



UNION CONTACTS LOISIRS


ZURE GIZA HARREMANETARAKO AGENTZIA

TFNOA: (943) 42 64 11

Okendo 2, 20004 - DONOSTIA

♥ **Bakarrik zaude?**
♥ **Zergatik?**
♥ Ez duzu inor ezagutzen zurekin ezkontzeko?
♥ Familia bat egin nahi baduzu...

♦ Gure laguntzarekin nahi duzuna lortuko duzu.
♦ Kezkarik gabe etorri guregana edo deitu.
♦ UCLrekin zoriontasuna lortuko duzu! Animatu!



Joxe Uranga: «*nekazal produktu ekologikoen demanda ase gabe dago*»

Biolur Elkarteko idazkariarekin solasean



«Bortziriak-Baztan aldea oso aproposa da nekazaritza honetarako»

Duela urte bat sortu zen Nafarroan “*Biolur*” Nekazaritza Ekologikorako Elkar-tea. Bortzirietan elkar-te honetako soziorik baldin badago ere, oraindik orain nekazari produktore gehienak Iruñerri eta Erribera aldekoak dira.

Nolanahi ere, alderdi honetan luze gabe beren aurkezpena egiteko asmoa agertu du Jose Urangak.

Biolur-eko paper-txo batetan nekazaritza ekologikoa zer den azaltzerakoan, “*lurra eta ura pestizida eta ongarri kimikoez kutsatu gabe egiten den nekazaritza*” dela erraten dute. Gainera, “*lurra teknologia modernoarekin*” lantzearen alde badaude ere, “*animalien gorotzez ongarritzatuz eta plagei aurregiteko produktu naturalak erabiliz*» jokatzeari zuzenena dela argitzen dute.

Zeintzuk dira Biolur-en helburuak eta nortzuk osatzen dute elkarteak?

Nekazaritza ekologikoa aurrera eramatea da helburua eta hortarako, produkzioa beharrezkoa da. Eta produkzioa egiteko nekazaria behar da, eta baita tekniko eta saltzaileak ere. Nekazariak dira Elkar-te honetan inportanteak eta beraiek zuzentzen dute Elkar-tea. 14 nekazari-produktore ditugu asoziatuak eta horietatik bost CRAEk (*Consejo Regulador de la Agricultura Ecológica*) delakoak emandako “*nekazaritza biologikoaren abala*” dutenak. Nekazariez aparte,

10 tekniko, 5 saltzaile eta 3 transformatzaile —gasna eta kontserba egileak—.

Zein tamainutako lur-sailak dituzte aipatu dituzun sozio horiek?

Abala duten bostak baratzeak dituzte; haundienak 5 Ha. ditu eta guzien artean 14,5 Ha. Dena dela, arazorik haundiena lur berriak lortzea da. Gehienak nekazaritza tradizionala landu dute berriki arte —pestizida eta ongarri kimikoak erabiliz— eta hauek nekazaritza ekologikora pasatzeko 3 urteko errekonbertsio denbora beharrezkoa dute. Honetan bertze bi daude sartuak, batek 60 Ha (garia, garagarra...) eta bes-

teak 4 Ha.

Inguru honetan ba al du bideragarritasunik nekazaritza honek?

Bortziriak eta Baztan aldea oso aproposa da nekazaritza klase hau egiteko. Alde batetik, inguru hontako lurra eta ura ez daudelako hain kastigatuak eta bestetik, merkatua oso hurbil dagoelako: Irun, Donostialdea. “*Estudio de mercado*” bat egin eta ikusi dugu oso demanda fua-tea duela.

Uste duzu hemengo nekazariarentzat, hau etorkizuna izaten ahal dela?

Argi dago Euskal nekazariak kalitateko nekazaritza batetara jo behar duela eta hori gisa honetako nekazaritzarekin atera daiteke. Gainera, produktu hauen oferta demanda baino tikiago da.

Norbait hastera animatuko balitz, zenbateko eremua beharko luke errentabilizatzeko?

Errentabilitatea lortzeko zein produktu landu behar den ikusi behar da. Momentuz, barazkiak, fruituak, arraultzeak, oilaskoak dira demanda haundienekoak. Barazkiak eginez familia batek bizia irabazteko 8.000 m² airean edo 2.000 m² plastikopean nahikoak liratekeela uste dut eta frutekin 1,5 Ha.

Mendi mutilak: lehen aunitz orain gutti

Arantzako mendi mutilak Aterpe erretegia ospatu zuten errege egunean urtero ohi duten besta

Garai batetan, gure herrietaraino industria aroa oraindik ailegatu gabea zegoenean, duela hogeita gutti urte arteraino, gazte gehienak oiha-nean egin ohi zuten lana. Gerra zibilaren aintzinatik eta ondoren ere gehienak, hemen, Euskal Herrian egiten zuten lana. Ikazgintza; ikatza egiteko zuhaitzak kimatu eta gero hura txondorretan errez ikatza egitea izaten zen eskulan gehien enplegatzen zuen lan mota. Orduan, lanerako gehien erabiltzen ziren tresnak aizkora eta arpaina izaten ziren.



84z geroztik Aterpe erretegia egiten dute mendi mutilen bazkaria. Argazkian, bertako nagusia eta etxeoandrea.



Lehen lan baldintza gogorragoetan aritzen ziren, baina hilabete guttiago pasatzen zituzten lanean

Geroxeago hasi zen Frantzia aldera (Perpignan, Alpes, Paris ingurura, etab...) lan egitera joateko ohitura. Bortziriak, Male-rreka eta inguruko herrietatik gazte aunitz joan izan da estatu frantziarrera mendian lan egitera, baina ziur aski —eta hau mendian urte aunitz pasatako batek dioenez— herri gutti izanen dira Arantzak hainbat gazte bidali duenik, izan ere, 60garren urte inguru horretan 120 gazte Frantziako mendietan lan egitera ailegatu bait ziren.

Ordutik honat, gauzak aunitz aldatu dira. Iazko urtean 7 bakarrik izan ziren Frantzian lan egin zu-

tenak, eta kopurua ez ezik, lan baldintzak eta bertze hainbat gauza ere aldatu dira. Guzi honen berri zehatza izateko, Julian Elizondo eta Donato Lizardi-ekin, eta baita Luzio Zugarramurdi, Aterpe erretegiaren nagusiarekin solas egin dugu, bera baita gaur egun, mendi mutilen laguntzarekin, errege eguneko besta antolatzen duena.

Donato Lizardi:

«Orain lan ordu guttiago sartzen dugu eta etxera ere maizago etortzen gara»

“Ni 68an hasi nintzen Frantzian lanean eta orduan mendian lan egitea hagitz gogorra zen, 14 eta 16 ordu

lanean sartzea gauza normala zen. Orain uda mian ere 10 ordu baino gehiago ez dugu sartzen. Lanerako tresnak ere aldatu dira, orduan lan guzia indarka egiten bait zen. Garai hartan mendian denbora guttiago pasatzen genuen, neguaren akabila aldera joan eta hasierako hemen izaten ginen, baina tarte horretan behin bakarrik etortzen; bestak pasatzeko. Orain berriz, urtean 11 hilabete pasatzen ditugu han lanean, baina maizago etortzen gara hona bisita egitera. Ni mendian lanean hasi nintzenean, duela 23 urte, 11.000 peze-ta irabazten nuen hilabe-

tean. Ordurako nahiko jor-
nala polita zen, hemen fa-
brikan ari zen batek erdia
edo horrelakoren bat ira-
bazten bait zuen. Gainera,
orduan gastatzeko aukera
guttiago zegoen, urte guzia
txabolan, mendian pasa-
tzen genuelako. Gaur egun
berriz, ez dago diferentzi
haundirik. Hemen jornalak
goiti egin dute eta han be-
rriz, guttiago, eta gainera
orain herrian bizi garenez,
gastatu ere gehiago gasta-
tzen dugu”.

Julian Elizondo:

*«Euskaldunak egiten
genuen lana orain
marrokiarrak, portugaldar-
rak eta turkiarrak
egiten dute»*

“Nik hamabortz urte
daramatzat Frantzian lan
egiten eta tarte honetan
gauzak aunitz aldatu dira.
Garai batetan kuadrila
haundiagoak izaten ginen,
hamabortz bat lagunekoa
izatea nahiko normala zen
eta orain berriz, bakarrik
ari naiz lanean. Orain lana
ere aldatu dut, bertzeak
egiten duten egurra trakto-
rearekin ateratzen aritzen
bait naiz. Lehen guk egiten
genuen lana orain marro-
kiarrak, portugaldarrak eta
turkiarrak egiten dute. Bizi
ere, bertze era batera bizi
gara. Lehen mendian, txabola
batetan bizi ginen, eta
orain berriz, “roulotte” ba-
tetan bizi naiz eta Aran-
tzako nere bi lagunak, he-
rrian etxe batetan bizi dira.
Lehen igandea bakarrik
hartzen genuen jai eta ora-
in berriz, larunbata eta
igandetan normalki ez dugu



Errege eguneko mendi mutilen bestan, Julian Elizondo eta Donato Lizardi, erdikaldean

lanarik egiten eta inguruko
herrietara ere ateratzen
gara. Frantsesez aunitz
egiten ez badugu ere, mol-
datzen gara inguruko jen-
dearekin tragu batzu hart-
zeko. Euskaldunak hagitz
estimatuak izaten gara, eta
oraindik ere hemengo jen-
dea nahi izaten dute men-
diko lanerako”.

Luzio

Zugarramurdi:

*«Lehen errege egunean
urte guziko kontuak
egiten zituzten»*

“Errege eguneko besta
egiten hasi zenean, egun
horretan urteko kontuak
egiten zituzten. Besta hori
egiteko ohitura aspaldikoa
da, 30 urte baino gehiago
baita hori ospatzen hasi
zela. Garai hartan kuadrila
frango izaten ziren, 6-7 bat.
Kuadrila bakoitzean izaten
ziren batzu nagusi egiten
zutenak eta bertze batzu
mutil, eta egun horretan
urte guziko kontuak egiten
zituzten. Besta egiteko ere



probetxatzen zen; eguer-
dian aizkora apostua, gero
bertsolariak, bazkari ede-
rra eta ilunabarrean plazan
musika ere izaten bait zen.
Baina, pixkanaka, mendi
mutilak guttitzen joan zi-
ren eta 84. urtean, nik
erretegia ireki nuen artean,
besta ez egiteko zorian
egon zen, gastu guziei ezin
bait zieten aurre egin mendi
mutilak bakarrik. Orduan
hasi nintzen besta antolat-
zen, eta geroztik horrela
antolatzen dugu, mendi
mutilak eta nik, denok ba-

tera. Orain ere, goizez, pla-
zan, herri kirol ikuskizu-
nen bat izaten da eta ondo-
ren bazkaria, bertsolariak
eta akordeolariarekin.
Orain mendi mutil gutti da
eta beraien familia bazkal-
tzera etortzen bada ere, ho-
riekin jantokia ez da betet-
zen. Jende aunitz mendi
mutila ez dena etortzen da,
baina halere urtetik urtera
giro hobeagoa dugu”.

PATXI LARRETXE

“III. Mendi Txirrindula Bilkura”k marka guztiak gainditu zituen Beran

Azken bi urtetako balantzea eta datorren urterako plangintza aurkeztu ziren

Eguraldi bikainarekin eta aurrikuspen guztiak gaindituz ospatu zen urtarrilaren 12an Beran “III. Mendi Txirrindula Bilkura” ez lehiagarria, Gure Txokoa Elkartek antolatua Berako Udala, DYA-Bortziriak eta Eskualdeko Kirol Batzordearen laguntzarekin, merkatal etxe zenbaiten babesaz.

Txirrindularien jatorria

Irteera hartu zuten 331 txirrindularien artean gehiengoa, %65 inguru, Gipuzkoatik etorritakoak ziren, Oiartzun, Lezo, Oreteta, Tolosa, Billabona, Donostia, Pasaia, Irun eta Hondarribitik batez ere. Era berean, Lapurdiko jendea ere nabaritu zen, Donibane Lohitzun, Ziburu, Azkain, Sara eta Miarrizetik batez ere. Nafarroari dagokionez, Bera, Lesaka, Iruñea eta Atarrabiakoak ziren txirrindulari gehienak.

Bi zirkuitu

Lasterketak 28 km. eta 12,4 kilometrotako bi zirkuituez osaturik zegoen. Txirrindularien artean 261ek luzeena aukeratu zuten, bertze 70ak laburragoan sartzeko. Jamotenea ondoko helmugan lehenengo iritsi zenak ordu bat eta 26 minutuko denbora egin zuen zirkuitu nagusian, 42 minututan burutuz txikiarena.

sian, 42 minututan burutuz txikiarena.

Aldiberean, Patxi Pikabea, Felipe Goureau, Bautista Telletxea eta Jose Mari Lasagak oinez egin zuten 28 kilometrotako zirkuitoa. Pikabea eta Goureau sartu ziren lehenik helmugan, 2 ordu 41 minutuko denborekin.

Opariak zozketatuz partaideen artean eta hamaketako bat banatuz eman zitzaion bukaera txirrindularen besta honi Jamoteneako egoitzan.

ROMAN HARRIBILAGA



331 txirrindularik hartu zuten parte ibilaldian eta hauetatik %65 gipuzkoarrak ziren.

Hilaren 31an bukatzen da fitxak betetzeko epea

Eskualdean, esparzimientu kiroletarako



Eskualdeko kirol koordinatzaileak, esparzimientu kirolean (eskolak, mendi goizaleak, AEK goitibera, zikloturismo, yoga...) fitxak betetzeko epea Urtarrilaren 31an bukatzen dela adierazi du.

1992eko dirulaguntza jasotzeko, data hori baino lehenago bete beharko dira fitxak, horretarako leku

hauetara joan behar delarik:

Lesakan, kirol bulegoan (udaletxean), ortzegunero, 10etatik 1ak arte.

Iturenen, Udaletxean, asteazkenero, 11,30etatik 1,30ak arte.

Elizondon, Arizkunean, 581279 tfnoan (Tati).

Leitzan, 510103 tfnoan (Iñaki).



“I. Jose Luis Larralde Memoriala” Beti Gazterentzat 3-1 irabazi zioten finalean Irundarrari

Lesakako Beti Gazte elkartearen jubenilen futbol taldeak lortu zuen Urtarrilaren 4ean lehen aldiz antolatzen zen Jose Luis Larralde Memorialaren garaipena, finalean Irundarra taldeari 3 eta 1 irabazi ondoren.

Bi finalistekin batera, Behobia eta Miren Biho-

tza taldeek ere parte hartu zuten Beti Gazteko jokalaria eta lehendakaria izan zenaren omenezko torneo honetan.

Txapeldunaren trofeoa, “Pali» Hidalgo, Beti Gaztekoen kapitainak jaso zuen, Jose Luis Larralde zenaren Amaia alabaren eskutik.

Soka-tira



Sokতিরাকো oinarritzko entrenatzaile ikastaroa egiten da Elizondon Otsailaren 9an. Parte hartzeko inskripzio epea Urtarrilaren 30ean bukatuko da (450900 tfa) eta kuota 3.000 pzta (bazkaria barne) da.

Hamabostaldiko jokaldiak



Nuarbeko Sokatira taldea. Gaur egun munduko txapeldunak direnak borondate hoberenaz emanen dute sokatirako oinarritzko entrenatzaile ikastaroaren klaseak. Otsailaren 9an Eizondoko Lanbide Eskolan.



Eskiatzera kilo soberakin joaten direnak. Gainontzeko eskiatzaileentzat arrisku «extra» izateaz gain, kristoren arrastoak uzten dituzte elurretan. Batzutan tankeren bat pasatu dela ematen du.

▼ Etxebizitzak

• **90 m²ko** pisua salgai Arraiotzen. 3 logela, egongela, jangela, sukaldea, bainua, trasteleku, ganbara, propano kalefakzioa eta baratzarekin, 6.800.000 pztatan. Tfa: 630016.

• **Lesakan**, lokalak alokatzen ditugu Erosle ondoan. 637404 Maldaerrek S.A.

• **Etxalar, Zugarramurdi** aldean baserria alokatu nahi nuke (mendian isolatu). Geroago erosteko asmoarekin. Birtartekaririk gabe. 943-616072 (4,30-8) Imanol.

▼ Lana

• **Haurrak** zaintzen edota etxeko lanetan egingo nuke lana goizez, ahalbada, Beran edo Lesakan. Haurrekin esperientzia badut. Deitu 637911 tfnora eguerditan (Eduene).

▼ Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentzat, bertsolarentzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **Aluminiozko** zankoak non egiten diren baldin badakizu, tfno hauetara hotsegin: 510321 eta 610637.

• **Bortzirietako** IKako ikasleei: Joan den urtean "Hirugarren gizona" eta "Ipuin beltzak" liburuak berandu iritsi eta banatu gabe gelditu ziren. Deitu eta har dezakezue, 637796 tfnoan.

• **Lesakan** erloju bat galdu nuen Eguberri egunean. Atzekaldean J.M. Baraibar jartzen du. Aurkitu baldin baduzue, mesedez deitu 637058 tfora.

▼ Salerosketak

• **Belarra** igotzeko Huracan izeneko tresna eta 650 litroko esne-tanke salgai. Baita Ford Fiesta NA-L. Tfnoa: 504406.

• **Tresillo** bat erosiko genuke. Norbaitek baldin badu, dei dezala 637796 telefonora.

• **Canon** markako tomabista eta proiektore sonoroa (Ref. 14 x L) salgai. Gutxi erabilia eta prezio onean. Tfnoa: 637879.

• **Eskuz** egindako koltxa, matrimonio oherako salgai. Tfnoa: 51 42 27.

• **Karrera** bizikleta eta mobileta salgai. Bakoitza 25.000 pztatan. Tfnoa: 637786 (Iñigo Etxepare).

• **Volkswagen Polo** Classic NA-U egoera onean saltzen dut. Tfnoa: 58 00 40 (Elizondo).

• **Katakume** siames emea salgai. 15.000 pzt. Tfa: 610794 (ilunabarrak).

• **Etxeko** izar txiki horrentzat seaska portatil eta motxila salgai. Merkeak. Tfa: 610794 (ilunabarrak).

• **Olivet** idazmakina elektrikoa, memoria eta guzi prezio onean salgai. Tfa: 610794 (ilunabarrak).

▼ Harremanak

• **Zubietako** Aintzane eta Iratxeri: Zuen koadrilako lagunentzat partetik urtebetetze eder bat pasa ezazue. Zorionak. Jaione, Beatriz, Natalia, Amaia, Lur. (Ospatuko dugu).

• **Urdazubiko** Arantxa M. rentzat zorionak zure urtebetetzearengandik Urdazubiko Eduene eta Mirenen partez.

• **Leitzako** Tutenea baserrian Amaia Suduperi zorionak urtebetetzean (Urtarrilak 29). Bere ezkonaldeko sendi guztiak eta senar Julianek maitasunez.

• **Urdazubiko** Izaskuentzat zorionak zure urtebetzearengandik eta muxu bat. Urdazubiko lagunak.

• **Leitzako** eskolako 7. mailako ikasleei: Mila esker eta musu haundi bat. Zuetaz asko oroitzen den bat.

• **L.A.L.** zuk uste baino hurbilago nago. Maite zaitut.

• **Nere** izarrak joan dira. Nartarteko Patricio maite zaitut, nere izarrak zurekin daude. Muxu bat. Neska bat?

• **Arizkungo** Aztunperi: Hobe duzu putzua urez betetzea, kubaten orde. Ji, ji, ji.

• **Elizondo**. Munduko lagun hoberena bait zara: zorionak Susana. Mirian eta G.

• **Ezkurako** Josebari: Zutaz maitemindurik nago. Leitzako K. ren partez.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



CRISTALERIA VELATE

Hilabete honetako eskeintza

**% 25aren deskuentoa
kristal isolatzailetan**



- ✓ Eraikuntzak kristalezatzea
- ✓ Instalazio komertzialak
- ✓ Climalit beira edo kristal isolatzailea (aislantea)
- ✓ Kristalera artistikoak
- ✓ Mural ispiluak

- ✓ Grabatuak beira eta marmol gainean
- ✓ Etxe barneko dekorazioa
- ✓ Bainurako mobleak
- ✓ Ate korrederodun armarioak
- ✓ Ate korrederak ispiluarekin

TAILERRAK: Sakanpea karrika, 18. nabea - **ANTSOAIN**. Tfnoa: 13 02 41

DELEGAZIOAK:

ELIZONDO

Pedro Axular karrika, 1
Tfnoa: 58 08 25

IRUÑEA

Villava etorbidea 12 Behea
Tfnoa: 13 20 21

DONEZTEBE

Mercaderes 5
Tfnoa: 45 09 91

MATRIKULATZEKO AUKERA BERRIA

EUSKALDUNTZEA – maila guztiak – EGUNERO

ALFABETATZEA – EGUNERO


EGA – EGUNERO ETA LARUNBATERO

KLASEAK GOIZ, ARRATSALDE ETA GAUEZ

DEITU BORTZIRIETAN ☎ 637796


MALERREKAN ☎ 451555 ZENBAKIETARA

BORTZIRIETAKO eta MALERREKAKO
EUSKALTEGIAK



ALMACENES ETXANIZ, S.A.

L e s a k a k o Iturria anaiak



ZURE BAINUA ALDATZEA
PENTSATZEN BADUZU ZATOZ
GUREGANA:

MOBLEAK, ISPILUAK, GRIFE-
RIAK, MANPARAK ETA BEHAR
DITUZUN OSAGARRI GUZIAK
DITUZU

Juan Arana, 3

Tfnoa: (943)

61 17 67

IRUN